

# agurra

Kaixo, lagunok:

Aurten, aurreko urteetan baino ekintza gutxiago antolatu ditugu Musakolan; baina ez da gogo faltagatik izan; izan ere, Arrasateko Udaletik izan ditugun murrizketak direla-eta ezin izan ditugu antolatu. Ondorioz, guztion gustuko diren GAZTE EGUNeko doako bazkaria eta olagarro jana bertan behera utzi behar izan ditugu azken hilabeteotan. Baina baikorrek gara, eta sekulako jaiak ospatuko ditugu; bai, horixe! Beste behin, erakutsiko dugu ez dagoela gurea bezalako jairik! Dena dela, murrizketa horiek ez gaituzte gure egunerokotasunetik aldendu. Hala, bereziki aipatu gura ditugu guztiondako merezitako pentsio duin baten alde borrokan ari diren guraso, aitaita-amama, lagun eta bizilagun guzti-guztiak. Gure maitasun, elkartasun, aitortza eta sostengua duzue!

Betiko moduan, bizilagunen, tabernen, denden, erakundeen, zerbitzuen, eta abarren laguntza eta eskuzabaltasuna eskertu gura genuke.

Azkenik, besarkada handi bat urtean zehar utzi gaituztenei eta, hainbat arrazoiengatik, gura izanda ere jai hauetan gurekin egon ezin zaretenoi.

Ondo ibili San Isidro jaietan!

Auzoko jai komisiñue